



ZARAUZKO XXI. GARAGARDO AZOKAKO KARTEL LEHIAKETA

Zarauzko XXI. Garagardo azoka dela medio eta urtero moduan, ZARAUZ RUGBY TALDEAK Kartel lehiaketa berri bat antolatu du oinarri hauen baldintzapean:

1. HELBURUA :

Kartel, esku programa, web orri eta sare sozialetan erabil ahal izateko.

2. PARTEHARTZAILEAK :

18 urte gora dituen edozeinek parte hartu ahal izango du gehienez 2 lanekin.

3. BALDINTZA TEKNIKOAK :

Estiloa eta teknika libreak izango dira.

Lanaren neurria DIN A3 tamainakoa izango da eta formatu digitalean eta paperean aurkeztu beharko dira..

Lanaren gaia Zarauzko garagardo azokari buruzkoa izango da eta ondorengo leloa eraman beharko du:

ZARAUZKO XXI. GARAGARDO AZOKA 2023
Apirilaren 5etik – Apirilaren 10era (MUNOAN)
Eguerdiko 12:00etatik gaueko 01:00etara

Azokan zerbitzatuko diren garagardo ezberdinen logoak ere itsatsi beharko dira. Logo Hauek , <https://www.zarautzrugby.com/garagardoazoka> web orrian izango dira eskuragarri edo info@zarautzrugby.com helbidera posta bat bidaliz.

Diseinatzaileak 5cm-ko tarte utzi beharko du orriaren behealdean antolakuntzak bere logoak jar ditzan.

4. LANEN JASOTZEA :

Lanak Zarauzko kirol elkarteko bulegoan aurkeztu beharko dira 2023ko urtarrilaren 16tik otsailaren 24a bitartean.

Zarauzko Kirol Elkartea

Kale Nagusia 7-1, 20800 Zarautz

Ordutegia:

10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara (Ostiraletan 10:00etatik 14:00etara). Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, kartazal itxi batetan, parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira. Kartazalaren kanpoaldean eta lanaren atzealdean lanaren titulua jarriko da.

5. SARIA :

300€ko sari bakarria izango da.

6. EPAIA

ZRTko zuzendaritzako kideez, Heinekenek aukeratutako kideez eta arte eta diseinuaz adituak diren pertsonen osatua egongo da epaimahaia. Honek ezingo du saria bertan behera utzi, ez zatitu, ezta bere saria gutxitu ere, nahiz eta beste lanei buruzko aipamen berezia egin ahal izango duen.

7. LANAREN ITZULTZEA

Lanak, epaimahaiak epaia ematen duenetik hurrengo hogeit hamar egun naturalen barnean jaso ahal izango dira utzi ziren toki beretik. Epe hau amaitu ondoren, jaso ez diren lanei buruzko erantzukizunari uko egingo zaio, eta antolakuntzak egokitzat jotzen duen erabil ahal izango ditu.

8. DATU PROTEKZIOA

Jasotako datu pertsonalak ez dira erabiliko lehiaketaren kudeaketarako ez diren helburuekin.

9. ESKUBIDE ESLEIPENA

Kartel lehiaketaren irabazleak, kartela eta berarekin eginiko eskuprogramen eskubideak Zarautz Rugby Taldeari esleituko dizkio Garagardo azokaren promozioan erabiltzeko.

Informazio gehiago:

Posta - info@zarautzrugby.com

Twitter - @garagardoazoka

Facebook - <https://www.facebook.com/GaragardoAzoka>

Instagram: @garagardoazoka